

FORO PARKE ONGI ETORRI otsailaren 18an, ez hutsik egin!

Oraingo honetan, 2020ko bigarren seihilekoan Sarean ezarri diren erakundeak ezagutzea du helburu.

FORO PARKE Euskadiko Parke Teknologikoen Sarearen topagunea da, eta sareko erakundeen arteko elkar ezagutza, lankidetzarako aukerak eta negozioaren garapena sustatzea du helburu. 2020an 580 konpainia izatera iritsi da. Hasieratik, **7 edizio** egin dira, eta **120 erakunde** baino gehiagok parte hartu dute.

PROGRAMA

09:00

Aurkezpen azkarren sorta (Elevator Pitch formatua)

- ADINBERRI FUNDAZIOA
- ALISEO ESCO
- BIKAI
- DEVICE SISTEMAS
- DRYFING
- INALIA
- LAM ROBÓTICA
- RDT INGENIEROS
- WIKICAMPERS

10:30

Aldebiko topaketak, eskaeraren eta prestasunaren arabera

- * Gehienez 6 topaketa enpresa berriekin.
- * Gehienez 15 minutuko iraupena.

* Aurkezpen errondetara eta aldebiko topaketetara modu independentean joatea posible da.

* Ezinbestekoa da izena ematea.

>> EMAN IZENA
otsailaren 10a baino lehen
cs@parke.eus



ADINBERRI FUNDAZIOA

www.adinberri.eus

Gipuzkoako Foru Aldundiaren fundazio publikoa, Gipuzkoan/Euskadin zahartzaro osasuntsurako estrategia sustatu eta garatzera bideratua. 2018an sortu zen, eta arlo horretako ekosistemak duen potentziala maximizatzea du helburu, bitzta osasuntua luzatu ahal izateko.



ALISEA ESCO

www.alisea.es

ALISEA ESCO, S.A energia-zerbitzuen prestazioan espezializatutako enpresa bat da; zehazki, energia-eraginkortasuneko proiektuak sustatzen eta ustiatzen aritzen da. Une honetan, % 100 energia berriztagarria sortzeko mikrotubina hidraulikoak fabrikatu eta merkaturatzeko proiektuan ari da lanean.



BIKAI

www.bikaiglobal.es

Business Intelligence deiturikoa edozein enpresaren eskura dagoen baliabide teknologiko erraz bihurtzea da gure helburua, erabaki errentagarriak hartuz, ETEei hazten laguntzeko. Izan ere, erabakiak hartzean datu objektiboetan oinarritzen diren enpresek emaitza hobekak izaten dituzte.



DEVICE SISTEMAS S. COOP.

www.devicesistemas.com

Aholkularitza eta akonpainamendua osasun arloko produktuen eta makinaren CE marka lortzeko. Funtzionamendu-lizentzia lortzetik, CE markarako ISO 13485 araua aplikatzera. Horrez gainera, zerbitzu hauek eskaintzen dira: arduradun teknikoak, arauak betearazteko arduraduna, barne-ikuskaritza, etab.



DRYFING

<https://dryfing.com/>

Neoprenozko jantziak garbitu, lehortu eta desinfektatzeko makinak diseinatu, fabrikatu eta merkaturatzeko proiektu bat da Dryfing. Makina horien bidez, uretako kirolen esperientzia hobetzen dugu, eta neoprenozko jantzien balio-bitzta luzatzen dugu, zainketa espezializatuaren bidez.



INALIA INNOVACIÓN Y DESARROLLO

www.inalia.tech

Industriaren iraunkortasun-arazoei irtenbideak eskaintzen dizkie Inalia-k, egiturazko monitorizazioaren eta horien interpretazio fisikoaren bitartez. Hiru negozio-ildo ditugu: produktu propioa (egun, Monbolt eta Datia), neurria egindako monitorizazio-produktuak eta diziplina anitzeko proiektuak.



LAM ROBOTICA

www.lamrobotica.com

LAM Robotica robotikan eta automatika industrialean espezializatutako proiektuen ingeniari da. Automatizazioaren, robotikaren eta sistemen integrazioaren arloko industriari irtenbideak eskaintzen dizkiogun diziplina anitzeko talde bat gara. Proiektu integralak eramaten ditugu aurrera mota guztietako bezeroentzat.



RDT INGENIEROS

www.rdtingenieros.com

RDT Ingenieros enpresa berritzailea da, osagai teknologiko handiko ingeniari-tza-proiektu aurreratuak garatzen ditu, eta malgutasuna ematen du bezero handiak kanpora ateratzeko estrategian. Jarduera nagusia enpresa handi eta ertainei arkitekterako eta ingeniari-tzako zerbitzu teknikoak ematea da, industria, energia, automobilgintza, trenbidea eta antzeko sektoreetan.



WIKICAMPERS

www.wikicampers.es

Partikularren artean autokarabanak alokatzeko webgunea gara. Beren ibilgailua urte osoan erabiltzen ez duten autokarabana-jabeak eta leku finkorik gabeko oporraldiak bilatzen dituzten bidaiariak jartzen ditugu harremanetan (doako eta konpromisorik gabeko iragarkiak).